

EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEAK 2015eko ABENDUAREN 18an EGINDAKO ERABAKI-PROPOSAMENA, EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOKO ESPARRU JURIDIKOA INDARTZEARI BURUZKOA

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) emakume eta gizonen berdintasunerako politika publikoak eratzea ekarri zuen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde sorrazteari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legea onartu ondoren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea sortzea izan zen arau-mugarri handiena. Orain arte egindako ebaluazioek erakusten dutenez, lege horrek, fruitu garrantzitsuak eman eta gure herrialdeko berdintasun arloko politiketan urrats esanguratsuak egitea ahalbidetzeaz gain, krisiaren eta aurrekontu-mugatzeeen testuinguruan, baita eskumen-mugatzeearenean ere, aipatutako politiken funtsezko elementuak, bitartekoak eta programak babesteko ere balio izan du. Horren froga gisa, 4/2005 Legea (erakundeei eskumen eta funtzio zehatzak ematen dizkiena) funtsezko tresna da, EAEko berdintasunari lotutako tokiko politikak mantentzen dituelako estatu mailako beste arau batzuen aurrean, hala nola, abenduaren 27ko 27/2013 Legearen aurrean (toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa). Azken lege horrek, hain zuzen, modu drastikoan eragotzi edo mugatu nahi du tokiko erakundeek emakumeen eta gizonen berdintasunari lotuta dituzten eskumenen baliatzea.

Horregatik guztiagatik, nazioartean, 4/2005 Legea praktika egokitzat jo da eta 2015ean Nazio Batuen Zerbitzu Publikoaren lehen saria jaso du, lanketan eta ezarpenean erakutsitako bikaintasunagatik.

Badakigu 4/2005 Legea eta aplikagarriak zaizkigun arlo horretako beste lege batzuk – adibidez, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2005 Lege Organikoa eta Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriak buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa– ez direla nahikoak emakume eta gizonen arteko desparekotasunaren arazo unibertsal, dimentsio anitzeko eta erro sakonekoari behin betiko erantzuna eman ahal izateko behar diren egiturazko aldaketak sortzeko, eta badakigu, gainera, askoz ere arlo gehiagotan esku hartu beharra dagoela,

hainbat ikuspegitatik. Hala ere, esparru juridiko sendo bat edukitzea oinarrizkoa da, berdintasun-politikak nahitaezkoak, egonkorrak eta indartsuak bihurtzeko, eta hala, horiek aurrera egin dezaten eta gorabehera politikoetatik eta aurkako egoeretatik babestuta egon daitezten.

Ildo horretan, bai lurralde mailan bai toki mailan berdintasun arloko araudi espezifikoak sortzeko egiten ari den lana nabarmendu behar da, oro har, eta bereziki, Gipuzkoako Batzar Nagusiek emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Araua onartu izana, baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako hamar bat toki-ordenantza onartu izana ere, Eudel-Euskadiko Udalen Elkarteak eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatutako Berdinsareak, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sareak, babestutako prozesu baten barruan.

Horregatik guztiagatik, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Arteko Batzordeak, 2015eko abenduaren 18an Gasteizen egindako saioan,

ERABAKI DU:

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Arteko Batzordea osatzen duten pertsonak eta erakundeak, beren eskumenen esparruan, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloko esparru juridikoa indartzea sustatzeko konpromisoa hartu dute, eta bereziki, emakume eta gizonen berdintasunerako legeetan eta horiek garatzen dituzten arauetan jasotako agindu orokorrak zehazteko eta lurralde historikoetako eta udaletako errealitateetara egokitzeko arau espezifikoak egin, onartu eta aplikatzeko, baita emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrerapausoak emateko funtsezko egiturak eta mekanismoak sortzeko edo indartzeko ere.